

# Liburutegi sareak 21 irakurgailu elektroniko berri ditu

Erabiltzaileen iritziz, oso zerbitzu interesgarria da; aurten, 485 mailegu egin dira orain arte

## Erredakzioa

Udal liburutegietako apaletan gero eta leku gehiago dago, pape-  
ra baino indar handiago hartzen  
ari direlako irakurgailu elektro-  
nikoak. Guztira, 30 liburu zeuden  
eta beste 21 erosi dituzte. Eskura-  
tutako gailu berri horiek internet  
eta beste irakurgailu batzuekin  
konektatzeko aukera eskainiko

dute. Horretaz gain, arkatz eta te-  
klatu integratuaren bidez pantaila-  
ren ertzetan oharrak idazteko  
aukera egongo da, baita agenda  
sortu eta musika entzuteko ere.

Urte eta erdi da udal liburutegi  
sarean liburu elektronikoen irak-  
urgailuak maileguan eskaintzen  
hasi zirela eta egunetik egu-  
nera harrera hobea dute. Iaz, 515  
mailegu egin ziren, eta, aurten,  
urtea bukatu gabe dagoela, 485  
izan dira.

## Inkesta

Donostia Kulturak eskaintzen  
duen zerbitzua «oso interesgar-  
ria» dela adierazi dute erabiltzaileek.  
Mailegua egin duten 347 baz-



21 irakurgailu elektroniko berri daude udal liburutegietako bazkideen eskura. MIKEL GOÑI

kideri inkesta egin diete eta %95ek zerbitzu interesgarri edo oso interesgarritzat jo dute. %76k zerbitzua berriro erabiliko luke-tela adierazi dute.

Eraitza horiek aztertu ondoren, liburu elektronikoen kudea-  
keta eta mailegurako platafor-  
mak eskuratzea izango da liburu-

tegi zerbitzuaren datozen urtee-  
tako lehentasuna.

Eduki digitalak sustatu eta za-  
baltzeko beharrak, hain justu,  
Donostia Kulturako liburutegien  
web ataria (www.donostiakultu-  
ra.com) berritzera bultzatu ditu.  
*Liburu Dantza* eta *Liburutegien  
Ahotsa* blog berriak erantsi dituz-

te, gainera. *Liburutegien Ahotsa*  
blogean, liburutegien munduko  
berrikuntzak eta teknologia ber-  
riak irakurketa eta liburuetan  
duten eraginaz idazten du Arantza  
Urkia liburutegi sareko zuzen-  
daria. *Liburu Dantza*, berriz, go-  
mendioak irakurri eta idazteko  
blog irekia da.

## Bertako informazioari bertako produktuak



Egin HITZaren  
harpidedun  
urriaren 31 baino lehen  
eta jaso  
artzai gazta,  
Idiazabal  
jatorri izenarekin,  
**OPARI**

www.aireberria.com



\*Saria 2011n erabili behar da.

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

**hitza** info

Hitzaren harpidedunen artean,  
azaroaren Zan,  
asteburu bat zotz egingo dugu  
Aireberria Hotelaren eskutik.



Surfak arrakasta handia du gazteen artean. BERA BERA

## Partaide kopurua igo da udako kirol ekimenetan

### Erredakzioa

Udako kirol ekimenetan 2010ean  
baino jende gehiagok parte hartu  
du. Donostia Kirolak 30 kirol el-  
karteren laguntzarekin urtero  
abian jartzen duen kanpainian  
12.596 lagunek hartu dute parte.  
Dena den, uztaileko eguraldi kak-  
arra dela-eta, 700 lagunek egin-  
dako eskaera bertan behera utzi  
zuten. Hala eta guztiz ere, 2010. ur-  
teko datuak zertxobait hobetzea  
lortu dute.

Eskola umeak dira kirol ekime-  
netan izen emateko gogorik handi-  
ena dutenak. Hala, kirol jardue-  
rotan parte hartu zuten 12.596 la-  
gunetatik, 10.623 gazte ziren 16  
urteko beharagoak. Adin arte  
horretako haur eta gaztetxoek

igeriketaren aldeko aukeraketa  
egin zuten. Tenisak eta hainbat  
kirol batzen dituen kirol anitza  
delako jarduerak ere arrakasta  
handia du. Azken jarduera hor-  
rekin du azken urteetako igoe-  
rarik handiena.

17 eta 29 urte bitarteko gazteei  
dagokienez, surfa dute nahiago.  
Kirol ekimenetan izen eman zu-  
ten gazteen %42,5ek aukeratu  
zuten surfa. Piraguismoa da biga-  
ren aukera (%21).

30 urtetik gorako helduek, be-  
rriz, piraguismoaren alde egin zu-  
ten. 1.168 lagunek erabaki zuten  
kirola egitea eta 247k aukeratu  
zuten piraguismoa. Surfa (204),  
padela (169) eta tenisa (119) izan  
ziren hautatuen zerrandan hu-  
rrengoak.